

# Euskal gizarte zibilaren bilakaera historikoa

(The historical evolution of Basque civil society)

Barcena, Iñaki  
Univ. del País Vasco  
Fac. Ciencias Sociales y de la Comunicación  
Dpto. Ciencia Política y de la Administración  
Bº Sarriena, s/ n  
48940 Leioa  
Posta-e: zipbahii@lg.ehu.es

---

*Azken 25 urteotan, protesta eta gizarte mobilizazio maila handiak gertatu dira Euskal Herrian, inguruko herrietako batez bestekoa aise gainditu dutenak. Ildo horretatik, euskal gizarte mugitzen ari den gizarte dela esan izan da, interes anitzen eta sistema politiko-ekonomikoaren balio alternatiboen aldeko asoziazionismo eta gizarte antolake ta maila nabarmeneko. Mendebaldeko gizarte guztietan gertatu den herri antolamenduaren fenomeno honek, are garapen ikusgarriagoa lortu du Euskal Herrian, eta gizarte zibil anitz eta eraginkorra eman du, etengabeko borrokan ari den erakunde politikoen eta botere ekonomikoekin le hian, tokiko mailatik maila globale rano.*

*Giltza-Hitzak: Gizarte zibila. Gizarte mugimenduak. Elkartee-hundura. Euskara. Feminismoa. Ekologismoa. Antimilitarismoa. Alternatiboa. Eztabaida. Partaidetza. Koordinazioa.*

*En los últimos 25 años en Euskal Herria se han producido altos niveles de protesta y movilización social, muy superiores a la media de las sociedades que nos circundan. En ese sentido se ha solido afirmar que la sociedad vasca es una sociedad en movimiento, con un notable grado de asociacionismo y de organización social para la defensa de intereses varios y de valores alternativos al sistema político-económico. Este fenómeno de organización popular, que ha ocurrido en todas las sociedades de Occidente, en Euskal Herria ha tenido un desarrollo aún más espectacular si cabe, generando una sociedad civil plural y dinámica, en constante polémica con las instituciones políticas y los poderes económicos, desde lo local hasta lo global.*

*Palabras Clave: Sociedad civil. Movimientos sociales. Tejido asociativo. Euskara. Feminismo. Ecologismo. Antimilitarismo. Alternativo. Debate. Participación. Coordinación.*

*Au cours des derniers 25 ans se sont produits en Euskal Herria de nombreuses mobilisations sociales, bien supérieures a la moyenne des sociétés qui nous entourent. On a affirmé que la société basque est une société en mouvement, possédant un remarquable degré d'associationnisme et d'organisation sociale pour la défense d'intérêts variés et de valeurs alternatives au système politico économique. Ce phénomène d'organisation populaire, qui s'est manifesté dans toutes les sociétés d'Occident a connu, en Euskal Herria, un développement encore plus spectaculaire, si c'est possible, créant une société civile plurielle et dynamique, en constante polémique avec les institutions politiques et les pouvoirs économiques, du "local" au "global".*

*Mots Clés: Société civile. Mouvements sociaux. Tissu associatif. Euskera. Féminisme. Ecologisme. Anti-militarisme. Alternative. Débat. Participation. Coordination.*

## ESKERTZAK

Nire esker beroenak Aitzpea Leizaola, Mikel Epelde, Mikel Insausti eta Emilio Majuelori txosten honen ziriborro ezberdinak irakurri eta komentario zorrotzak emateagatik. Bereziki eskertu nahi nuke Sabino Ormazabal, txostena goitik behera erreparatu, osatu eta editatzeagatik, ohizkoa den bere jarraera gogotsuarekin.

### SARRERA: GIZARTE ZIBILAREN KONTZEPTUAZ

Zer ulertzen dugu gizarte zibilaz? Zerk edo nor osatzen dute eta zerk edo nor ez? Non hasi eta non bukatzen dira horren mugak? Zein dira dermio horrek bildu dituen esanahiak eta zein dira horren aniztasunaren arrazoi eta zergatiak? Horiek dira planteatu beharreko zenbait galdera zertaz ari garen jakiteko, zeren historian zehar “gizarte zibila” esapidea elkarren antz gutxi duten forma, testuinguru eta uneetan erabili baita. Horren erabileran elkaren kontra dauden ideiak eta edukiak proposatzera iritsi da. Gainera, euskal kasuan bestelako hitzak entzuten ohituagoak gaude, hala nola elkarre sareak, gizarte edo herri mugimenduak.

John Keane-k bere obretan –“Civic Society and The State” eta “Democracy and Civil Society”– oritarazten digunez, gizarte zibila esapidea Europako pentsamendu klasikoan eta feudalean erabili zen jadanik eta orduan hartu zuen esanahia, burgesia liberalak eta haren teorikoei Estatu absolutista eta monarkikoari kontrajarria erabili baino lehen.

Horregatik, gizarte zibilaz hitz egiten dugunean, erakunde politikoen kontrol eta legitimitatearen betiko bihurtze korapilotsuetan sartzen gara, hau da, “estatu jardueraren mugen gainean” gabiltza, 1790ean Wilhelm von Humboldt-ek idatzi zuen bezala.

Ardatz historikoetan oinarriturik, esan dezakegu era guztiz desberdinak izan direla gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko bereizkuntza (edo bereizkuntzarik eza) eta bien arteko erlazioak ulertzeko, are tradizio liberal eta sozialistetan beretan ere. Hala, batzuetan gizarte zibila Estatutik dator eta Estatuaren baliokidea da (Bodino, Spinoza, Hobbes) eta bestetan Estatua, gizarte zibilaren baliabide eta osagaia da (fisiokratak, Eskoziako filosofoak, Locke, Kant, Ferguson).

Badira Estatua botere eskuordetzea dela gizarte zibilaren ongi izaterako (Payne), eta Hegelen antzera, Estatua gizarte zibilaren independentzia babesten eta bermatzen duen une gisa hartzen dutenak. Halaber, Stuart Mill edo Tocqueville bezalako batzuk kezkatuagoak ageri dira gizarte zibila irensteko joera duten estatu botereen abusuekiko (Keane, 1988).

Nolanahi ere, gure egunotan bereizketa bat egin dezakegu. Alde batetik, gizarte zibilaren konzeptio “generalista” dutenak, hots, modu idealean, norbanakoa eta Estatua lotzen dituzten ideia eta

baliioen legearen inperioa, aginte publiko mugatu eta erantzulea, gizarte aniztasuna eta merkatu ekonomikoak...– adierazpide diren erakunde sozio-politikoaren multzo gisa definitzen dutenak; eta bestetik, aurrekoen aurka, “minimalista” deitu direnak, hots, gizarte zibila elementu ez gobemutarretara murrizten dutenak (Pérez Diaz, 1997).

Azkenekoen artean, elkarren aurkako argudio eta kontzeptualizazio lerro bi aurkitzen ditugu. Batzuek (liberalek) gizarte zibila sektore pribatuaren sinonimotzat hartzen dute, halako eran non merkatua askatasunaren berme den, eta kontratuak interesen elkartzeko askearen bidea.

Beste batzuek (komunitaristek, kritikoei eta sozialistek), hala Estatuaren nola merkatuaren aurka egonik, gizarte zibilaz ari direlarik, esparru publikoan diharduten elkarte sareak, taldeak, gizarte mugimenduak eta komunikazio sozialaren erak aipatzen dituzte (Arato eta Cohen, 2000).

Puntu honetaz gero, esan behar dugu gure azterketan azken kontzeptio horri loturiko ikuspegia hautatu dugula. Hala, guretzat, aginpide politiko eta merkatuarekin loturirik ez izanik, euskal esparru publikoan diharduten gizarte elkarte eta mugimenduen multzoa da Euskal Herriko gizarte zibila.

Beste kontu garrantzitsu bat zera da, gizarte bat, edo hobe esan haren norbanakoak eta taldeak, jarduera kolektibora eta gizarte mobilizaziora bultzatzen dituzten arazoiak jakitea. Euskal Herriaren kasuan, agerikoa da gure gizarteak bizi duen gatazka politiko-nazionala dela faktore nagusia, gurea zergatik den hain gizarte zibil dinamiko eta anitza ulertzen salatzen garenean.

### LEHEN ATALA: HERENTZIA FRANKISTATIK HERRIXKA GLOBALERA

Euskal gizartea asko aldatu da azken 30 urteotan. Diktadura frankistaren ondoren politika eta erakunde egiturak aldatu dira, eta gainerako mendebaldeko mundu garatuarekin homologatzen gaituen sistema demokratikoa ezarri egin da. Baina gure gizarte eta ekonomia egitura ere aldatu egin da. Gure industriak eta bizimoduak aldeturik geratu dira. Hiriak, herriak eta paisaia aldatu dira baina, planeta globalizatu berriaren atala izanik ere, euskal gizarteak berezia eta bakarra bilakatzen duten ezaugarri multzo bat kontserbatu du. Hori gure iraganarekin zerikusia duen zerbait da, baita gure orainari; loturik dagoena ere.

Europako beste zenbait herrialdetan ez bezala, 60.ko urteen amaieran ikasle mugimenduek eta “ezker berria” deiturikoak beren aldarrikapen antiimperialistak plazaratzen zituztenean eta Ongizate Estatuaren hazkunde ekonomikoari eta ongizate materialari uko egiten zietenean, oinarrizko demokrazia, sexuen arteko berdintasuna, gizarte zein arraza diskriminazioarik eza, bakezaletasuna, indarkeriarik eza eta ekologismoa aldeztu zituztela (energia nuklearraren, militarismoaren, burokra-

zia estalinistaren eta gerra hotzaren aurka), Euskal Herrian diktadura frankistaren aurkako borroka zen nagusi politika, gizarte eta kultura testuinguruan. Baita Iparraldean ere, non erbesteratuen eta Espainiako diktadurak zigorturikoen aldeko elkartasun agerraldiek eta laguntza kanpainek garrantzi handiagoa zuten 68ko Maiatzaren irakaspen eta ondorioek baino (Jacob, 1998 eta Cassan, 1996).

Aldi historiko horrek munta handia izango zuen, eta ez bakarrik gizarte zibilaren moldaketan, baizik eta ondoko bi hamarkadetan Euskal Herrian gertakari sozio-politikoek gertatu behar zuten moduan ere.

Bi ahots nagusi dira Hegoaldeko euskaldunen ukoaren ordezkari, frankismoaren garaiko zentralismoaren zapalkuntza, hizkuntza bakar, askatasun demokratikoen gabezia eta errepresioaren aurka altxatu zirenak. Alde batetik, langile mugimendu industrialak eta haren erakunde politikoak eta presindikalak; eta bestetik, mugimendu abertzalea edo askapen nazionalakoa. Bi-biak izango ziren Frankoren aurkako gaitzespen mugimendu haren oinarri, zalantzarik gabe garrantzitsuena Espainiako Estatu osoan.

Burgosko Prozesutik (1970), ETAko zenbait ekintzaile hiltzera kondenatu zituzten hartatik, 1977ko amnistia orokorra arterainokoa, gizarte mobilizazio eta protesta geroz handiagoko aldi larri gertatu zen, non, bertan esku hartzen zutenen aukera ideologiko zabala eta helburu zein estrategia desberdintasun nabarmenak gorabehera, "ekintza batasunaren" aldeko apustua egin zen, erregimenaren erorketa ziurtatzeko taktika eta biderik onena zelakoan.

Gainera, Espainiako erreforma politikoaren aurreko aldi horretan, diktadura sistemak hartara beharturik, klandestinitatean edo Eliza katolikoaren harresi-barmean diharduen gizarte zibila aurkitzen dugu. Folklore eta kultura agerraldi gutxi batzuri ematen baitzitzaizen jendearen aurrean azaltzeko baimena.

Tantsizio espainiarra gertatu zen moduak markatu zuen ziklo politikoaren aldaketa: ez zen haustura demokratikorik gertatu, askok nahi zuten eta prestaken ari ziren bezala, baizik eta itunduriko erreforma, iragana ahaztea zekarrena. Moncloako Itunek monarkia konstituzional eta Estatu autonomikoaren sistemari eman zioten bidea, aukera politikoetarako egitura berri batez hornituz. Horren aurrean, politika, ekonomia eta kulturaren alorreko atsekabe mailak euskaldunek Espainiako Konstituzioa gaitzestea ekarri zuen (1978-XI-16), langile mobilizazioaren maila garaia eta kultura zein hizkuntza eskariak mantendu zirelanik.

Eskari antinuklearrak, feministak, antimilitaristak eta, oro har, mugimendu alternatiboak, trantsizioaren atala izan baziren ere, etapa autonomikoaren hasiera zela eta, erreferendumean Gernikako Estatutua onartzea (1979) eta Nafarroa-

ko Parlamentuak Foruaren Hobekuntzarako Legea onestea (1981), beste aldi batean sartu ginen; oraingoan, gizarte zibilaren hainbat elementu agertuko dira, gai sozio-kulturak berriak dakartzatela. Dena den, gizarte mobilizazioaren ardatz nagusia nazio auziaren inguru mugitzen jarraituko zen, gatazka nazionala konpondu ezean, euskal komunitateak autodeterminazioaren alde eginiko eskariak bere horretan jarraituko baitu.

Horrek argitzen du EAEn eta Nafarroan erakundeetako dinamikak eta gizarte zibilaren proposamenak oraindik aurrez aurre gertatzea, hein handi batean, lankidetzan, integrazio eta adostasunerako gune gutxi uzten duena, Europako beste herrialdeetan lorturikoak baino gutxiago beti ere, eta are Espainiako Estatuaren gainerako lekuetan baino gutxiago, non Ongizate Estatu ahul bat nagusitu zen, laster profesionalizaturiko alderdi eta interes taldeen neokorporatibismoa eta kultura gehienbat materialista eta gutxi partehartzailea protagonistak zituen (Pastor, 1998).

Gaur egun, euskal gizartea Europako Batasunaren espazio politikoan mugitzen da, garapen instituzional askotariko eta desberdina lortu duela bere hiru lurralde administratiboetan. 14 hauteskunde deialdi egin dira EAEn eta Nafarroan 1976tik, baina Iparraldean bezala, dinamika politikoek biratzen jarraitzen dute, "cleavage" klasikotik edo eskuinen eta ezkerren arteko bereizketatik haratago, nazio nortasun arazoan eta biolentzia politikoaren aurreko jarrenen inguru.

Asko aldatu dira gauzak euskal panorama sozio-kulturalean eta ekonomikoan, baina politika eremuak Estaturik gabeko nazio txiki honen etorkizuna konpondu ezinean jarraitzen du komunikabideen eta ekonomiaren globalizazioaren garaiotan. Gaurko unibertsitario gazteek ez dute frankismoa ezagutu eta hala ere haren herentziak garrantzi handia izaten jarraitzen du haiengan eta euskal gizarte osoaren gainean.

Ildo horretatik esan beharra dugu erakunde garapena, tokikoa, probintziala edo euskal autonomiarena, ez da gizarte zibileko elkarte eta mugimenduen lankidetzan eta integrazio maila handiarekin bat etorri. Aitzitik, asko izan dira desadostasunak eta liskar guneak, bertako desobediencia zibil eta protesta mailak gure gainerako geografia inguruneak baino goragokoak direla beti ere.

## BIGARREN ATALA: EUSKAL HERRIA TXIKIA, ASKOTARIKOA ETA ANITZA

Euskal Herrian, munduko beste nazioetan bezala, XX. mendearen azken aldiko modernizazio eta globalizazio prozesuek aldaketa nabarmenak eragin dituzte jendearen bizimoduan, naturan eta gure ingurugiroan, bai eta gizartearen eta komunikabideen gaineko kontrola areagotu ere. Gizarte sistema (post)modernoaren aldaketen aurrean,

euskal gizarteak nahikoa arrazoi aurkitu du beraren bizi eta izateko erak, nortasunak eta etorkizunerako proiektuak moldatzen eta aldatzen dituzten eraldatze-erritmo azeleratu horri egokitzeko edo aurre egiteko.

XX mendeko azken bi hamarkadetan, alderdi aniztasuna eta gobernatzaileen egonkortasun eza izan dira Euskadiko eta Nafarroako sistema politikoaren ezaugarriak. Bertako hautesleak abertzaleen eta zentralisten artean, ezkerren eta eskuinen artean banaturik aurkitzen dira; horiek dira kontraesan edo bereizketa nagusiak, gehiengo binomioetako lehen aukeren alde azaldu dela.

Jokaleku honetan, politika egiteko molde berriek, alderdietatik eta gobernu erakundeetatik at, eta gehienetan horien aurka ere, euskal gizarte mugimenduen mobilizazio etengabea eta ziklikoa ekarri dute, eta batzar dinamika eta antolamenduak sortu dituzte, horizontalak eta parte hartzaileak, hein handi batean ordezkaritza-demokraziaren eskemekin ados ez datozenak. Alternatibotasun hori kutsu anti-instituzionalistaz horniturik egon da.

Izan ere, euskal aktibismo sozialaren garrantzi kualitatiboa eta kuantitatiboa, geroago ikusiko dugunez, kontuan hartzeko datua dugu. Herrialde desberdinen arteko konparaziozko ikerketei heldu ezinean, ez baita horrelakorik, hurbileko erkidego politikoekin egindako apriorizko konparazio hutsez, ohartzen gara gizarte talde, elkarte eta erakunde pilo dagoela Euskal Herrian, eta beren jarduera, kanpaina, mobilizazio eta protesten bidez eragina dutela euskal gizartearen eta sistema politiko-ekonomikoaren baitan, hainbat eremutan dihardutela, hala nola antimilitarismoa, ekologismoa, feminismoa, nazioarteko elkartasuna, euskara, gazteria, giza eskubideak, osasuna, sexualitatea, aisialdia, hezkuntza, komunikazioa, kultura edo kirola.

1999an Joxemi Zumalabe Fundazioak euskaraz argitaratu zuen euskal gizarte mugimenduen gidaliburuan 1.500 talde eta elkarteren datuak aurki daitezke. Horiek ideia bat ematen du euskal gizarte zibilaren espektro askotarikoaz eta disziplinantzeakoaz.

Kontuan hartu beharra dago Euskal Herria 3 milioi inguru biztanle dituen lurralde txikia izanik ere, paisaia, hizkuntza, klima, erakunde eta gastronomia desberdinak hartzen dituena bere baitan, eta horrek eragiten du gizarte zibilaren agerpenak askotarikoak eta anitzak izatea. Hala eta guztiz ere, orain nabarmendu nahi dugun datua zera da, horren aktibismo ugaria eta taldeen aberastasuna.

Nabarmentzekoak gertatzen dira euskal abertzaletasunaren eta bere gizarte sareen indarra, industralizazioa eta emigranteen harrera jendetsua joan den mendearen hasieran eta erdian, bai eta geroko industria birmoldatzea, hiru hizkuntzen bizi-kidetzatza zaila edo mendialdeko edo barnealdeko nekazaritza munduaren bereizketa, euskal hiriburu-erueteko, hirietako eta periferiaren auzoetako giro burges/proletario sinbiotikoa. Orobat, azpimarratze-

koa da euskal lurraldearen neurri txikiak eta bertako klima eta paisaiaren aniztasun handia, bai eta bertako herri eta eskualdeen nortasun nabarmena, zeren eta faktore horiek, bereziki politikoak direnei erantsirik, Euskal Herriko gizarte zibilak duen indarraren eta aniztasunaren nolakoa eta zergatikoa ulertzen laguntzen baitute.

#### HIRUGARREN ATALA: ANTOLAMENDU ETA MOBILIZAZIO ALDI DESBERDINAK

Jarraian, leku eta denbora arrazoiengatik, gain-giroki aztertuko ditugu azken hiru hamarkadetan euskal gizarte zibilean gertatu diren mobilizazio zikloak, prozesu politiko-ekonomikoan izan duten tartekatze eta eraginari kasu eginez.

Gure herrian hirurogeigarren urteetan sortu eta garatu ziren gizarte mugimendu gehien bultzada eta irakinaldi hartatik, finkatze eta diskurtsoaren zati baten instituzionalizaziora pasa zen laurogeigarrenetako bigarren erdian; gero, laurogeita hamargarrenetan berregokitze eta sarean elkartzeko aldia etorri zen, eta egoera horretan gaude gaur egun.

Metodo arrazoiengatik, narrazio labur honetatik kanpo utzi behar izan ditugu –edo oso erreferentzia laburrak egin haietat– erakunde politiko eta sindikalak, ikasleenak eta antierrepresiboak, zeintzuk sozialak baina areago politikoak izanik, beste eragile politikoaren kategorietatik hurbilago dauden, hala nola alderdi, sindikatu edo presio taldeetatik, are gehiago Euskal Herrian non familia politikoetan elkartzen diren eskuarki, nahiz eta halakoen presentzian gabe zaila izan euskal gizartea ulertzea.

#### LAUGARREN ATALA: ZIKLOAREN HASIERA, IRAKINALDIA ETA DINAMISMOA

70. urteetako erdialdean, Francisco Franco diktadorea desagertu zen –1975eko Azaroa– garaitsuan hartan koka dezakegu askotariko gizarte mobilizazio eta protesta mota publikoki azaldu ziren unea; horiek gizarte alderdia erantsi zioten amnistia eta askatasun politikoaren eske ziharduen diktadura erregimenaren aurkako protesta politiko garrantzitsuari.

Ondoko urteetan, zerbitzu militarari eta armadari uko egiten zioten kontzientzia objektoreak eza-gutzero eman ziren, jarduera berriak zekartzatela; OJEn lokalen okupazioak gertatu ziren eta lehen “Casas de la Juventud” sortu ziren (gaztetxeak geroago); irrati libreen lehen emanaldi motelak irten ziren uhinetara; gay eta lesbianen organizazioek beren lehen agerraldiak plazaratu zituzten; drogamenpetasun berriei erantzuna ematen hasi zen; elkartasun internazionalista antolatzen zen, kultura asteak eta ekitaldiak ugarituz joan ziren... Pegata eta horma irudien urteak dira horiek.

Kulturaren alorrean sarturik, euskararen aldeko gizarte mugimendua asko bizkortu zen lehen aldi batean, gai horren inguruko aginte eta lege hutsu-

neaz baliatuz. Haren helburuak ziren: euskararen batasuna eta normalizazioa, euskal eskola –ikastola– abian jartzea, euskaldunak alfabetatzea eta helduak euskalduntzea, bai eta euskara euskal kulturaren esparru guztietan sartzea, arte eta kirol-etatik musika eta literaturaraino, tartean unibertsitate, enpresa edo Administrazioa zirela.

Horrek ahalbidetzen du, 1977an, euskararen ofizialtasunaren aldeko 150.000 sinadura biltzea, 711 euskal elkartek abalaturik, bai eta Kilometroak, Gipuzkoako ikastolek antolatutako urteko ekitaldia, burutzea ere, gero gainerako euskal lurraldeetara hedatu zena (Araba Euskaraz, Ibilaldia, Nafarroa Oinez eta Herri Urrats).

1978an, Euskaltzaindiak “Bai euskarari” kanpaina abiarazi zuen, Euskararen Liburu Zuria argitaratu ondoren, eta zenbait hilabetez hamamaka mila pertsona mobilizatu zituen ekitaldi jendetsuetan. Kanpaina horrek AEK-ri utzi zion lekukoa, gaur bi urtetan behin antolatzen duen Korrika bere ibilbidea has zedin.

Frankismoaren amaieran, euskal mugimendu feminista abian jarri zen bertako emakume askok etxetik kanpoko lanari ekin ondoren, gehienbat hirugarren sektorean (osasuna, irakaskuntza, garbiketa, Administrazioa eta bulegoak, merketaritzea, banka...). Horrek “pentsamolde aldaketa” eragin zuen emakumeengan ere, kultura eta askatasun ekonomiko handiagoa zela eta, lan egun bikoitzaren pisuagatik eta erregimen frankistaren beraren borondatek haratago zihoan ohitura zein gizarte moduen halako liberalizazio bat zela bide (Mujeres de la AMV, 1986).

Leioan eginiko Euskadiko Lehen Jardunaldi Feministetan (1977) agerian geratu zenez, diktaduraren amaieran langile eta abertzale mugimenduetan sartu ziren emakumezko ikasle eta langileek aurkitu zuten –berdintasun juridiko eta politikoaren akean– matxismoa eta puritanismoa ezkututzen zirela. Patriarkargoa ez zen berezkoa eta ez zegokion kapitalismoari bakarrik: era guztietako gizarte eta politika erakundeak munduaren ikusmolde matxistaren menpe zeuden. Modu horretara, emakume taldeak agertzen hasi ziren herriz herri, auzoz auzo, Bizkaiko, Gipuzkoako, Araba eta Nafarroako Emakumeen Asanbladek koordinatuak. Agerian jarri zuten “pertsonala dena politikoa dela”, patriarkatuak goitik behera markatzen duela gizartea, emakumeen zapalkuntzaren funtsezko erakunde dela familia eta izan badela emakumeen sexualitatea, zanpatua bada ere. Labur esanik, emakumeena ez zen kanpoko munduaren lehen aurkikuntza-aldia izan zen hura, eta gizarteari, ezkerriari, militantziari eta politikari egiten zioten kritika benetan erabatekoa, biribila eta erradikala zen, dimentsio ezkutatu eta isildu hori, femeninoa, nabarmentzeko asmoz. (Mujeres de la AMV, 1986).

Euskal feminismoaren bereizketa nagusiak, berdintasun eta diferentziaren feminismoaren haratago doaz, nahiz eta bereizketa hori presente dagoen argi eta garbi. Bazen feminismo independente bat

(Asambleas de Mujeres Independientes eta Lanbroa), militantzia bikoitzeko beste feminismo marxista baten aurrean. Bazen feminismo ekintzaile eta errebindikatzaile bat, kanpainak egin zalea, kanpora eta aginte politikorantz begiratzen zuena, euskal gizarteak bizi zuen politika aldaketan une hartan, 70. urteen amaieran, guztiz boladan zegoena; horren ondoan, bazegoen beste feminismo molde bat, gogoetara emana, bame aldera proiektatua, azterketa, eztabaida teorikoa, sakontzea eta autokonkientzia gogokoa zituena. Bestalde, aurrekoak bezain garrantzitsua, antolaketa eta diskurtsoan izango zituen ondorioengatik, nazio arazoa zegoen, eta bereziki biolentzia politikoa, banalerrigisa euskal feminismoaren barmean. Halaber, bestelako talde feministak ere izan ziren, beste alderdi bereizgarrietan oinarritzen zirenak, hala nola lesbianen, emakume gazteen edo internazionalisten kolektiboak.

Hego Euskal Herrian, 70. urteetako ekologismoaren sorrera ez zen natura zientzietako elkarten eskutik gertatu, beste herrialde batzuetan bezala (Britainia Handia, Suitza, Alemania, Holanda, Suedia edo EEBB); izan ere, horien sortzaileak auzoen mugimendu antifrankistatik heldu ziren, horiek piztu baitzuen eztabaida, eta mobilizazioak antolatu ere bai, langile klasearentzako bizi baldintza duinen alde (Erandio-Gas, Leioa-Dow Chemical, Barakaldo-Sefanitro...), energia nuklearraren aurka (Lemoiz, Ea-Ispaster, Deba, Tuter) eta natura guneen defentsan (Belagua, Gorbeia, Urdaibai, Larrun, Txingudi...).

Komite Antinuklearren diskurtso publikoa, hasieran, guztiz antikapitalista zen eta teknologia nuklearraren aplikazio zibila eztabaidatzeaz gainera, energia nuklearrak zekarren gizarte eredia zalantzan jartzen zuen, eta auto-antolamendu erak, asanblearioak eta antiburokratikoak erabiltzen zituen (Barcena, Ibarra, Zubiaga, 1995).

Trantsizio politikoaren une historiko hartan, erakunde frankista zaharrek ospe guztia galtzen ari zirela eta erakunde autonomiko berriak oraino ahulak zirenean, Lemoizko zentralaren proiektua benetak frogatzen gertatu zen jokoan ari ziren guztientzat. Harrisburg-eko istripuaren (1979) ondoren, mugimendu antinuklearrak “Euskadi ala Lemoiz” kontsigna beretzan, puntu gorenera eraman zuen plan nuklear frankisten eta euskaldunen autodeterminazio gogoaren arteko kontraesana. Komite Antinuklearrek azaltzen zuten, zentral nuklearra eraikitzen jarraitzea eta euskal herriari erabakitzeke eta autogobernurako ahalmena ukatzea sinonimoak ziren (Eguzki, 1987).

Agintari autonomiko berriak zentral nuklearraren aldekoak ziren, baina botere mugatu edo sinbolikoa zutela, Euskadin Lemoizko proiektuari buruzko erreferendum bat agintzera iritsi ziren (1980), baina hori ez zen sekula gauzatu.

Desobedientzia zibileko kanpaina luzeak, hitzaldiak, batzar eta bilera publikoek, manifestazio eta kontzentrazioek, ibilaldiek, eta Administrazioaren

zein enpresa eraikitzailearen (Iberduero) aurka egindako sabotaje-ekintza ugarik, ETArek ekintza armatuekin batera, hondatu egin zuten 1982an Lemoizko proiektua. Euskal mugimendu ekologistak, modu horretara, garaipen urez hartu zuen bataioa, ez bakarrik jardunbideari edo kulturari dagokiena, baizik eta erreala eta politikoa (Zubia-ga, 1995).

#### BOSTGARREN ATALA: ZIKLOAREN ERDIA, INSTI-TUZIONALIZAZIOA, FINKATZEA ETA ANIZTASUNA

Hastapeneko abiadura oldartsu haren ondoren, euskal gizarte zibilaren antolakuntza eta mobiliza-zio dinamikak, baita identitateari buruzkoak ere, askotarikoak eta desberdinak gertatuko ziren 80. urteetan. Dena den, bereziki sistema politikoan izandako aldaketa garrantzitsuen ondorioz, eta kri-sia eta ekonomiaren birmoldaketa prozesuak zirela kausa, esan daiteke euskal gizarte zibila jokaleku berri baten aurrean aurkitu zela. Erakunde eta agin-tari berrien agerpena eta industriaren eraiste siste-matikoa (Majuelo, 2000) gertatu ziren egoera berri hartan, gizarte mobilizazioa eta protesta mantendu ziren. Baina erantzunak ez ziren aurreko hamarkada bezain indartsuak edo unitarioak.

Euskal kulturaren esparruan, Gernikako Estatu-tuak (1979) eta Nafarroako Foruaren Hobekuntzak (1982) beste aldi bat zabalduko dute. Izan ere, Euskeraren Erabilpena Arauzkutzeko legea (1982) eta Euskararen Foru Legea (1986) argitaratuko dira, eta horien ondorioz gobernu autonomiko berriak eta beren diputazioak hizkuntza politikaz, itzulpen zerbitzuez eta kabinete teknikoek hornituko dira.

Hortik aurrera, desakordio eta aurka egiteak nagusi izango diren hamarkada luze bat abiatuko da, non euskararen aldeko gizarte mugimenduaren parte handi bat Pirinioen alde bietako erakunde politikoaren aurrean gertatuko den.

Desadostasun politiko horrek hainbat ondorio ekarriko du. Alde batetik, talde, eta organizazio deberdinek eta tokiko, eskualde, herrialde edo nazio mailako ekimenek beren arteko koordinazioa bilatuko dute. 1983an EKB (Euskal Kulturaren Bakarria) sortu zen, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, UEU, Argia, Jakin eta tokiko hainbat talderen esku-tik. Nafarroan eta Iparraldean, EKB erakundeaz gai-nera Oinarriak eta Deiar dar direlakoek, hurrenez hurren, burutu zuten koordinazio hori. Eztabaida eta aurka egite garrantzitsuena, zalantzarik gabe, AEK eta HABEren artekoa izan zen, helduen euskaldun-tzearen alorrean lehiatuko baitira mugimenduaren / erakundearen ikuspegi kontrajarrietatik. Gerago, nahiz eta barrura begira, AEKren zatiketak etorriko ziren, Bertan (Bizkaia) eta IKA (Araba eta Nafarroa), antolaketa kontuengatik.

Feminismoari dagokionez, 80ko hamarkadan agertu ziren Emakumeen Asanbladatik bananduriko talde gehienak (Aizan, Lanbroa, Donostiako Inde-pendienteak, Lesbianen Kolektiboak...) edo orduan

sorturiko talde berriak, hala nola Forum María de Maeztu edo Agora Feminista izenekoak, guztiok homogeneotasun, koherentzia eta diskurtso propio-aren bila.

Gainera, 80ko urteen amaiera aldi, Euskal Autonomia Erkidegoan Instituto Vasco de la Mujer/ Emakunde delakoaren agerpena, beste tentsio eta desadostasun gune bat gertatu zen. Hasiera batean, bai Emakumeen Asanbladek eta bai Aizanek ere, haren sorrera gaitzetsi eta euskal mugimendu feministaren jardueraren alor sartzeko legitimitaterik eza kritikatu zuten. Beste talde batzuek, hala nola Forum Maria de Maeztu edo Asociación Clara Campoamor direlakoek, haren sorrera bultzatu zuten, kontuan harturik, Espainia-ko Instituto de la Mujer ez bezala, ez zela inongo izaera alderdikoi markaturekin jaitzen. Esaterako, Espainiako Estatuko beste autonomiekin alderatu-rik, Emakunderekiko harremanak, feminismoaren erreformismoa eta instituzionalizazioa gaien inguru-ko jarrerak eta eztabaida askoz latzagoak izan ziren hemen, eta horretan zerikusi handia du Eus-kal Herrian bizi den tentsio sozio-politikoaren ego-erak.

Ingurugiroaren esparruan, Lemoiz ondoren, Lei-tzarango Autobidearen gatazka, 90-92 urteetan unerik larriena izan zuena, aldi horretako auzi eko-logiko garrantziena izan zen, eta gainera argibide gisa balioko digu mugimenduaren baitan gertatuko ziren birmoldatzea eta dibertsifikazioa ulertzeko.

Gatazkaren erreibindikazio nagusia, diskurtso antidesarrollista batetik, komunikabide berriari era-bateko ukotik –Autobiarik Ez–, bide alternatibo baten proiektura –Lurralde, 1989– pasa zen. Proiektu horrek Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko errepide-komunikazioak hobetzeko ikuspegi ekologi-ko eta zientifiko-teknikoa eskaintzen zuen, eta azkenean “elkarrizketa eta bidearen aldaketa” eskatu zen; horrekin batera, ikusmolde eta jarrera desberdinak agertu ziren.

Leitzaranen, mugimendu ekologistak ez zuen bere alde hamar urte lehenago Lemoizen izandako hain gizarte sare zabalen laguntza. Euskal adminis-trazioen –gai horretan aginpidedun zirenen– finka-tze maila handiagoa zen, nabarmenkiro. Halako egoeraren aurrean, ezinbestean ia, aliantza siste-ma bat egituratu zen ezker abertzalearen inguruan. Obrak hasi zirenean, horien eta makineriaren aur-kako sabotajeak antolatu ziren, ETAK ekintzak buru-tu zituen, eta orduan eztabaida ekologista bigarren planora pasa zen, bigarren bereizketa-arrazoia ager-tua zen.

Halatan, auzi horren azkeneko balantzeak zapora gazi-gozoa izan zuen. Garrantzizko aurre-rapenak (komunikazioa, errepide-alternatiboa gauzatzea, mobilizazio jendetsuak...) egin ziren, baina diskurtsoaren ardatza gizarte-ingurugiroa-ren alorretik hertsiki politikoa-demokratikora pasa zen, eta obra, bideaz aldatu eta Leitzarango parte bat bakarrik ukiturik ere, azkenean autobia egin egin zen.

Euskal gizarte Lemoizko proiektuaren –Madrilgo agintariek ezarritako proiektu nuklear zibilaren– aurka azaldu zen, eta hala berean, OTANen aurka eta Europan bizi zen mehatxu nuklear militarren aurka zegoen. Euskal Herrian, Hegoaldeari bakarrik gagozkiola, OTANen aurkako kanpaina/ mugimenduak 80. urteetako parte handi baten agenda politiko-soziala beretu zuen, eta antinuklearrek eta ekologistek eta euskal organizazio antimilitaristek elkar harturik buruturiko kanpainak izan ziren honen jatorrian, aldi berean soldaduska gaitzetsi eta euskal lurraldean zeuden instalakuntza militar espainiarren aurka joken zutelarik (Mungia, Jaizkibel, Belagua, Bardeak...).

Euskal Herriko OTANen aurkako mugimendua hiru bloketan antolatu zen. Euskadiko Mobida Anti-OTAN delakoa, izaera anitzekoa eta asanblearioa, Komite Antinuklearrek eta Ekologistek bultzatua eta talde zein elkarte antimilitaristek lagundua. Horren ondoan, Euskadiren Subiranotasun Nazionalaren aldeko eta OTANen aurkako Manifestua. Hirugarenik, Bakearen eta Desarmearen aldeko Euskal Kolektiboak.

Euskaldunen gehiengoak OTANetik ateratzearen aldeko jarrera hartu zuen 1986ko martxoan egin zen erreferendumean, %62,6 ezezko eta %33,5 baiezko. Katalunia eta Kanariak ere garaile irten ziren, baina ez zen hori gertatu Espainiako Estatu osoan, non baietak irabazi zuen. Horrek irakurketa desberdina edo zentroaren eta periferiaren arteko adostasunik eza agertarazi zuen berriro ere.

Gernikako bonbardakaren 50. urteurrena zela eta antolaturiko Gernika 37-87 kanpaina gertakari mobilizatzaile garrantzitsu bilakatu zen, euskal mugimendu ekologista eta antimilitaristarentzat berrosatze eta eztabaida unitarioen aldia izango zenaren hasieran.

Azkenik, mugimendu alternatiboa aipatu beharrean gaude, zeina, hamarkada horretan guztiz boladan dauden gaztetxei, okupazioari, jai alternatiboei eta irrati libreei loturik, herri mugimenduen komunikazio, berrikuntza eta ahalmena zabaltzeko gune interesgarria den. Gorabeherak eta aldaketek jasanik, barne antolamenduaren dinamiken eta tokiko errealitateetatik haratago doazen koordinatu eta egituratzeko saio ugarien artean, horren ahalmen erradikala eta identitarioa kontuan hartu beharreko elementua dugu euskal gizarte zibilaren osagaien kontaketa.

## SEIGARREN ATALA: ZIKLOAREN AMAIERA? LATENTZIA ETA BERREGOKITZEA

90ko hamarkadak euskal gizarte zibilaren antolaketa eta jardunbideak berregokitzea ekarriko du, eta horrek 70. urteen erdialdean abiatutako ziklo mobilizatzailearen amaiera suposatzen du zenbaitentzat. Gure ustetan, 90. urteetan gizarte zibilak eta bere elkarte eta mugimenduek berriro planteatu beharko dituzte beren helburuak eta jardunbideak, zeren eta aldaketa asko gertatu dira euskal

gizartearen baitan, hala sistema politiko-ekonomikoan nola pentsamolde eta bizimoduetan.

Hori dela eta, asko emendatu da erakunde berrien kopurua, hala nola garapenaren aldeko GKE (ONG) direlakoak edo bestelako laguntza elkarteak eta bazterreko sektoreei –emigrazioa, hiesa... laguntza ekartzen dietenak. Horiek guztiak Administrazioak egokiro kudeatzen ez dituen esparru eta eginkizunak betetzen salatzen dira eta, oro har, ez dira Administrazio horrekin gatazkak sartzen, haren mendean direlarik beren elkertasun proiektuak aurrera eramateko; eta hori da, hain zuzen ere, batzuen iritziz, herri erakundeen marka galarazten diana.

Hala eta guztiz, halako sortasun edo latentzia aldian sartu bagara ere, aurreko hamarkadetekoen erako kanpaina eta mobilizazio handirik gabe, zenbait esparrutan, hala nola antimilitarismoa, ekologismoa eta euskara, garrantzi handiko gatazkak, mobilizazio eta aktibismo mailak mantendu dira.

Era berezi batez nabarmentzeko da intsumisioaren aldeko mugimendua, euskal lurraldeetatik 1988an egindako proposamen antimilitarista, gehienbat KEM-MOC eta Kakitzat taldeek bultzatua, gerora beste hainbat atxikiko bazitzaian ere.

1995eko maiatzean, 3.500 intsumiso inguru zegoen Euskal Herrian, Espainiako Estatuan guztira 5.500 zeuden bitartean, eta ia 200 intsumiso preso hartzen zituzten Euskal Herriko kartzelek. Objektore eta intsumiso horiei Euskal Herriko 100 udal baino gehiagok helarazi diete beren laguntza. Udalerri horiek uko egin diote soldaduak errekutatzeari eta intsumisoen aurkako errepresio lanetan laguntzeari. Eusko Legebiltzarrak ere zenbait deklarazio egin ditu intsumisioaren despenalizazioa eskatzeko (azkena, 1993ko apirilaren 6an).

Hamarkada horretan, orokorrean, Euskal Herriko biolentzia politikoaren aurkako mugimendua agertzen da indarez. Mugimendu horren barnean, biolentzia politikoa ulertzeko bi era nabarmendu dira. Alde batetik, biolentzia helburu politikoetan erabiltzearen aurka direnek legitimitate etiko eta politikorik eza salatzen dute eta arau demokratikoen onarpena eta gatazka politikoak konpontzeko bide baketsuen erabilera exigitzen dituzte. Bestetik, badira Euskal Herriak bizi dituen haustura eta gatazka politiko-sozial luzea kontuan harturik, biolentziaren ukapen soiletik haratago, parte guztien arteko elkarrizketaren eta negozioren aldeko apustua egiten dutenak.

Lehenengoen artean, Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea aurkitzen da, 1986tik konzentrazio isilak eta bestelako jardura eta mobilizazioak antolatzen dituen, euskal gizarte biolentzia politikoaren eta terrorismoaren aurka kontzientziatu nahiz. Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea tokiko talde ugari biltzen du, askotan Elizarekin loturikoak. Haren baitatik Bakea Orain eta Denon Artean bezalako taldeak irten dira, haren funtzionamendu politikoarekin eta antolamenduare-

kin bat ez zetozelako eta estrategia politiko eragin-korrangoak bilatzen zituztelako; aukera politiko jakin batzuetatik hurbil daude ETArein zein ENAMen aurkako diskurtso erasokorrango agertzen dute.

Bigarengoen artean Elkarr (1992) dago, bitartekotzarako mugimendua, elkarrizketa eta liskar egoera luze batetik atera ahal izateko hitzarmena bultzatzen duena. Elkarrik Bake Topaketa antolatu zuen 1995eko martxoan Bilbon eta aurten (2001. urtean) Bake Konferentzia bat egiteko ekimena aurkeztu dio euskal gizarteari. Gainera, badira izaera antirrepresiboa duten talde batzuk, hala nola Senideak edo Amnistiaren aldeko Gestorak; beste batzuek tokiko izaera dute, hala nola Gernika Batzordea, Olereta Bake Taldea, Herria 2000 Eliza eta Giza Eskubideen aldeko Elkartea (Asociación Pro Derechos Humanos), zeintzuek, Euskal Herriko biolentziaren amaiera helburu, talde bakezaleen arteko elkarrizketetan parte hartu duten.

Beste parametro batzuetan, mugimendu alternatiboak kanpoaldean utzi eta halako ghetto batean ixteko arriskuari aurre egiten dio, elkarte (irriti libreak, gaztetxeak, okupak...) sareak koordinatzeko eta berrantolatze borondate erabakiaren bidez, baina helburu globalei begira.

Ahalegin laudagarriak burutu ondoren, euskararen aldeko mugimenduak balio handiko tresna abian jartzen ireki zuen ziklo berria, "Euskaldunon Egunkaria" izenburuko egunkaria, 1999an Euskararen Kontseilu Sozialaren sorreraren bidez bermatuko zena. Izan ere, Kontseiluak bere baitan euskararen alde borrokatzen diren talde guztiak hartzeaz gain, mobilizazio, plangintza eta partaide-tza politika abiarazi du, horretan 650 enpresa, entitate, erakunde eta herri elkarte konprometitu direlarik. Horren sinbolo gisa, beste "Bai euskerari" antolatu zuen Kontseiluak 1999ko abenduaren 26an: euskal biztanle guztien %11 (300.000 pertsona) bildu zituen, 5 euskal hiriburutako 5 futbol zelaietan.

Nolanahi ere, ahalegin horiek ez dute aldaketarik lortu Iparralde eta Nafarroako errealitate politiko-sozialari dagokionez, berriki Nafarroako gobernuak lurralde horretako zenbait eskualdetan hizkuntzaren koofizialtasuna dekretuz ezabatzeko hartu erabakiak garbi erakusten duenez. Alde batetik, euskarak inoiz ez ditu hainbat eskola, hainbat pedagogia zein komunikazio bitarte, ez eta hizkuntza ikastearen eta zabaltzearen aldeko hainbat jende, baina aldi berean, euskararen aldeko mugimenduak ohartarazten digunez, egoera diglosikoa mantendu ez ezik, aurreratzen ari da alderdi askotatik.

Euskal mugimendu feminista anitzak, bi hamarkadako ibilbidearen ondoren, bere desberdintasunak onartzen ditu eta harremanak hobetzen saiatzen da, ongi jakinik itxurazko berdintasun juridiko eta legala gorabehera, ibili beharreko bide luzea geratzen dela emakumeak, lanean edo unibertsitatean, etxean edo kalean, aske eta berdina sentitu artean. Eta bat datoz soilki emakumeek euskal erakunde sozial eta politikoetan parte har-

tzeak ahalbidetuko duela bortxaketa eta erasoak, diskriminazioak lan eta ekonomiaren alorrean, lanaldi bikoitzak edo homofobia desagertzea.

Badira, alabaina, botere politikoarekin harremanetan jartzeko praktika eta molde alternatiboak. Lanbroa edo Plazandreok bezalako taldeek ez dute euskal alderdi feminista baten sorrera begi txarrez ikusiko, hurrenez hurren, Europako eta udal hauteskundeetara aurkeztu baitira. Beste zenbait taldek presioa egingo dute alderdi politiko parlamentarioen gainean ordezkari-tza kuotak har ditzaten beren zerrendetan, emakumeen presentzia kargu publikoetan bermatzearren; kontu honetan, dena den, asko aurreratu da 1977tik -Iruñeako parlamentuan %28 (1999) eta Gasteizkoan (2001) %34 dira emakumeak-, oraindik nahikoa ez bada ere.

Mugimendu ekologistari dagokionez, Itoizko urtegia eraikitzearen aurkako oposizioak hartu du ingurugiroaren lekukoa Euskal Herrian. Bai Nafarroako gobernu autonomikoek eta bai Madrilgo gobernu zentralak ez dute inoiz solaskide gisa Itoizko Koordinadora aintzat hartu eta uko egin diote edozein motatako harreman, elkarrizketa edo kontzesiorik egiteari. Horrek eraman du Koordinadorak, bere informazio eta gizarte mobilizaziorako lanekin batera, hainbat prozesu administratibo eta judiziali ekin diezaiezen Nafarroan, Madrilan eta Bruselan, urtegiaren eraikuntza ekiditeko, eta urtegia ilegala deklaratzeko lortu du.

Urte horietan, Administrazio Publikoa bera izan da Euskal Herriko ingurugiro protesten helburu nagusia (kasuen %78 1988 eta 1997 artean, "The Transformation of the Environmental Activism" izenburuko europar ikerketaren arabera), eta azpiegitura handiak izan dira tokiko, probintziako, autonomiako edo estatuko agintariekiko etengabea den gatazka baten ardatz nagusia, gaur egungo ingurugiro-gatazkek islatzen dutenez: Itoizen ingurukoa, AHT (TAV), parke eolikoak, Bilboko errausketa planta eta gainerako proiektu energetikoak (Boroa, Bahia Bizkaia, IGCC-Petronor, Castejón...), kirol eta industria portuak edo lindanoaren poluzioa Bizkaian.

Iparraldean borroka ezagunenak hauek izan dira: Gas-Pars-ekoa, Lacq-Nafarroa oliobidearen aurkako, turismoarentzako urbanizazio, golf eta autobideen aurkako kanpainak eta AHT (TGV/TAV) proiektuaren aurkako. 1990eko abuztuan, talde ekologista batzuek (Ortzadar, Pays Basque Ecologie, Ideal...) koordinazio bat abiatzea erabaki zuten informazioa partekatze, eraginkorrak izateko eta elkarrekin lan egiteko, estilo komunak eta elkarrekin konfiantza sortzeko xedetan. Lehen urrats horrek "Collectif de Associations de Défense de l'Environnement" (CADE) ekarri du, Iparraldeko ekologismo soziala biltzen duen kolektiboa eta Hegoaldeko homologoetan ahaleginak koordinatzen hasi dena.

Aurreko mugimenduez gainera, laurogeita hamargarren urtean amaieran Lurra mugimendua sortu zen; bazterketaren aurkako hainbat proposa-



men koordinatzen dira eta ildo horretatik Gizarte Gutuna aurkeztu zen, ILP bidetik, Gasteizko eta Iruñeko parlamentuetan, eta Hemen eta Munduan delakoaren bidez globalizazio ekonomikoaren aurkako hainbat kolektibo koordinatzen dira, hiru kasuotan euskal sindikalismoaren parte baten aha-lerinak biltzen dituztelarik.

#### ZAZPIGARREN ATALA: EUSKAL GIZARTEA "MUGIMENDUAN"

Gizarte praktikako ia 30 urteetan, antolamendu eta komunikazio sareak ehundu dira, eta horiek ezaguera sortu eta esperientzia metatu dute gizarte zibil guztiaren baitan.

Lorpenetariko batzuk agerikoak dira, hala nola euskal lurraldean ezartzekoak ziren lau planta nuklearren porrota, emakumea lan munduan sartzea, derrigorrezko soldaduskaren amaiera edota argitaletxe eta argitalpen euskaldun ugariren sorrera.

Azken hiru hamarkadetan euskal gizarte zibilaren praktika horiek izan duten eragina ebaluatzen jarri gero, esan genezake mugitzen garen eremua hainbat ideiek kutsatua ageri dela: hizkuntza berreskuratzea edo naturarekiko begirunea, bi sexuen arteko berdintasuna edo militarismoaren gaitzespena. Beste gauza bat da, ordea, feminismoak, antimilitarismoak edo ekologismoak ekarritako balio –postmaterial– berriei jarraiki, jarrerak edo arau, gizarte eta lege kodigoak aldatzea. Gizarte eskari horiek haintzat harturik, praktika berri batzuk garatu eta lege berriak promulgatu badira ere, luzea da oraino ibili beharreko bidea. Fenomeno lokala bada ere, Iruñe eta Hondarribiko Alardeen kasua adibide garbia dugu arau edo legearen eta eguneroko errealitatearen artean oraindik dagoen aldea antzemateko.

Horago aipaturiko gorabeherak eta krisiak, desakordiak eta elkartzeak jasanik ere, euskal gizarte zibila heldurik eta osasun onean dagoela dirudi. Haren produkzio kulturala eta antolamendu egitura, askotan aginpide politikoaren aurka eraikia izanik ere, neurri batean aitorturik geratu dira azken urteetan, eta batzuek (Sztompka, 1995) birbanatze prozesuak deiturikoak seinatzen dituzten zenbait aldaketa begiztatu dira.

Administrazio Publikoak, eskuineko zein ezkerreko alderdi politikoek bezala, erantzun behar izan diete gizarte zibilak sortu dituzten gatazkek markaturiko agenda berriei, eta sail batzuk –"ad hoc"– moldatu behar izan dituzte (Ingurugiroa, Euskara, Emakumea, etab.) politika publiko berriak plazaratzeko edo hautesleak eta iritziz publikoa –hasieran gizarte mugimenduek proposaturiko– hainbat ideiekin konpromisoez konbentzitzeko. Gizarte mugimenduek, beren aldetik, erakunde eta alderdi politikoek komunikabideetan duten ahots eta irudiaren nagusitasunari aurre egitea bilatzen dute, ikusgarritasun eta berrikuntzaz hornituriko protesta eta mobilizazioen bidez, beti eskandaluaren bila

dabiltzan mass-media horien begirada erakartzeko, ezen lankidetzak guneak gutxi izaten jarraitzen dute, salbu eta garapenaren aldeko GKEen (ONG) kasuan edo euskarari dagokion EAEh.

Nolanahi ere, euskal gizarte zibilaren diskurtsoaren eta gaien gero eta onarpen politiko zabalagoari ez zaizkio segitu giza zibil horren kooptazioa, integrazioa eta instituzionalizazioa, esanahi sistematikoa. Beste inguruko herrialdeetan baino askoz gutxiago, behinik behin. La hiru hamarkada, giza bizialdian halako heldutasun baten ezaugarria da eta milurteko berriaren euskal asoziazionismoa ez da beranduko frankismoaren antzekoa, ez bere etxean, ez eta kalean ere.

Bestalde, elkarte gehienak diru aldetik erakundeen mende ez izateak nahikoa aske egiten ditu eta horien instituzionalizazio hasi berriak zerikusirik handiago du, egindako gizarte lana dela eta, iritziz publikoaren, komunikabideen eta erakundeen onarpenarekin.

Azkenik, gure iritziz, gizarte talde eta mugimenduak pizgarria izan dira euskal gizartearen balio demokratikoak hedatzerakoan, eta haren desobediencia zibileko praktikek demokrazia sakontzearekin loturik dagoen elkarizketa, herri subiranotasun, gutxiengoei tolerantzia eta errespetuzko kultura transmititzeko balio izan dute. Gurea bezalako herrialdean, autodeterminazio pertsonal eta kolektibo funtsezko ebidentzia den lekuan, gizarte mugimenduen ekarpenak etorkizun esperantzagarri bati aurre egiteko kapital politiko-sozial interesgarria da.

#### BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

- AEK (1997): "Euskal Herria Komika. 17 urte 10 pausotan". *Euskaldunon Egunkaria*, Bilbo.
- AGIRRE & IBARRA & AJANGUIZ & SAINZ DE ROZAS (1998): "La insumisión. Un singular ciclo histórico de desobediencia civil". Tecnos, Madril.
- AGIRREBALTZATEGI, Paulo (1995): "Euskararen aldeko gizarte-mugimendua (EGM): Zeregina eta artikulazioa". *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 16. zk. Donostia.
- AGIRREBALTZATEGI, Paulo (1999): "Euskararen aldeko gizarte-mugimendua eta EKB. Azken 25 urteak begiratu". *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 31. zk. Donostia.
- AGOTE, Imanol (1995): "Euskararen aldeko mugimendu soziala". *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 16. zk. Donostia.
- AJANGUIZ, Rafael (2000): "Política militar y movimientos sociales: El fin de la conscripción en Europa". Dokto-re tesia– UPV-EHU.
- ALABART, Anna (1998): "Els moviments socials a Catalunya" en CAMINAL & MATIAS (eds.) "El sistema político de Catalunya". Tecnos/ Ed. Univ. Barcelona/ S.P Univ. Autónoma. Barcelona.
- ARATO, A. & COHEN, J. (2000): "Sociedad Civil y Teoría Política". Fondo de Cultura Económica, Mexiko.

- ASAMBLEAS DE MUJERES DE EUSKADI eta AIZAN (1986): "Euskadiko Emakumeen II. Topaketak/II Jornadas Feministas de Euskadi". Autoedizioa, Bilbo.
- BÁRCENA, I. (koord.) (1998): "Bilbo Nora zozaz? Es sostenible nuestro modelo de ciudad. Reflexiones para un Atlas Medioambiental del Gran Bilbao". Eki, Ereka. Bakeaz. Bilbo.
- BÁRCENA, I; IBARRA, P; ZUBIAGA, M. (1995): "Nacionalismo y Ecología. Conflicto e institucionalización en el movimiento ecologista vasco". Libros de la Catarata, Madrid.
- BÁRCENA & IBARRA & ZUBIAGA (1998): "Movimientos sociales y Democracia en Euskadi: Insumisión y ecologismo" en IBARRA & TEJERINA (ed.) "Los movimientos sociales. Transformaciones políticas y cambio cultural". Trotta, Madrid.
- BENEDICTO, J. y REINARES, F (1994): "Las transformaciones de lo político". Alianza, Madrid.
- BRAND, K.W. (1992): "Aspectos ciclicos de los nuevos movimientos sociales; fases de crítica cultural y ciclos de movilización" in DALTON, R.J. & KUECHLER, M. (ed.) "Los nuevos movimientos sociales: un reto al orden político". Valentzia. Edicions Alfonso el Magnánim.
- CASADO DA ROCHA, A. & PÉREZ, J.A. (1996): "Itoiz: Del Deber de la Desobediencia al Ecosabotaje". Pamie-la, Iruñea.
- CASSAN, Patrick (1996). "Francia y la cuestión nacional vasca". Txalaparta, Tafalla.
- COORDINADORA DE ORGANIZACIONES FEMINISTAS DE EUSKADI (1996): "Euskadiko III. Ihardunaldi Feministak/III Jornadas Feministas de Euskadi. Mugarik ez emakumeentzat!". Autoedizioa, Bilbo.
- DIANI, Mario (1992): "The concept of Social Movement". *The Sociological Review*, 38. zk.
- EGUZKI (1987): "Lemóniz 1972-198...". Autoedizioa, Bilbo.
- FERNÁNDEZ, Joaquín (1999): "El ecologismo español". Alianza Editorial, Madrid.
- GELB, Joyce (1992): "Feminismo y acción política" in DALTON, R.J. & KUECHLER, M. (ed.) "Los nuevos movimientos sociales: un reto al orden político". Valentzia, Edicions Alfonso el Magnánim.
- IBARRA, Pedro (ed.) (1992): "Objeción e Insumisión. Claves ideológicas y sociales". Fundamentos, Madrid.
- JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA (1999): "Euskal Herriko Herri Mugimenduen Gida". Arabera, Gasteiz.
- JACOB, James E. (1998): "Hills of Conflict. Basque Nationalism in France". University of Nevada, Reno.
- KEANE, John (1988): "Democracia y Sociedad Civil". Alianza Universidad, Madrid.
- MAJUELO, Emilio (2000): "LAB sindikatuaren historia. Langile Aberkaleen Batzordeak (1975-2000)". Txalaparta, Tafalla.
- McADAM, D.; McCARTHY, J.D. eta ZALD, M.N. (ed.) (1999): "Movimientos sociales: Perspectivas comparadas". Istmo, Madrid.
- OFFE, K. (1986): "Partidos políticos y nuevos movimientos sociales". Sistema, Madrid.
- PASTOR, Jaime (1998): "La evolución de los nuevos movimientos sociales en el Estado español" en IBARRA & TEJERINA (ed.) "Los movimientos sociales. Transformaciones políticas y cambio cultural". Trotta, Madrid.
- PÉREZ DIAZ, Víctor (1997): "La esfera pública y la sociedad civil". Taurus, Madrid.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, Jose M<sup>e</sup> (1987): "Un futuro para nuestro pasado". Autoedizioa. Donostia.
- SZTOMPKA, Piotr (1995): "Sociología del cambio social". Alianza Editorial, Madrid.
- TEJERINA, B; FERNANDEZ SOBRADO, J.M. and AIERDI, X. (1995): "Sociedad civil, protesta y movimientos sociales en el País Vasco". Servicio Publicaciones del Gobierno Vasco, Gasteiz.
- URTEAGA, Eguzki (1998): "Iparraldeko mugimendu anti-militaristaren sorrera: Baldintzak eta aktore kategoriak". *INGURUAK* 21. zk., Blito.